Murgian, bi mila eta hemeretziko uztailaren hamaikan, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ezohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**ALKATEA**
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
ITZIAR MENDIA CELAA AND. (EH Bildu)
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZUIA BAI)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (ZUIA BAI)
ANDRÉS LAFUENTE OTXOA JN. (ZUIA BAI)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK**
NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (ZUIA BAI)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

**1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

En Murgia a once de julio de dos mil diecinueve, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Extraordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR MENDIA CELAA (EH Bildu)
DOÑA ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (EH Bildu)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZUIA BAI)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (ZUIA BAI)
DON ANDRÉS LAFUENTE OTXOA (ZUIA BAI)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

**CONCEJALES QUE NO ASISTEN**
DOÑA NEREA IDIGORAS LASAGA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (ZUIA BAI)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

Udala eratzeko bilkuraren akta ikusirik, Alonso zinegotzi jaunak esan du berak inolako gehigarririk gabe egin zuela karguaren promesa.

Aurreko akta azaldutako zuzenketarekin (Alonso jaunak *legeak hala aginduta* gehigarria kentzeko eskatuta) onartzea erabaki du Udalbatzak aho batez.

**2.- TALDE POLITIKOEN OSAERA ETA BEREN BOZERAMAILEAK EZAGUTZEA**

Alkateak arauzko epean eta moduan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDko 23 artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren babespean aurkeztutako idazkien berri eman du, taldeak honako hauek izanik:

- EHBildu Zuiaren udal-taldea: bozeramailea, Unai Gutiérrez Urkiza jn., eta ordezkoa, Inma Elorza Bergara and.
- ZUIA BAIren udal-taldea: bozeramailea, Itziar Ircio Vea-Murguía and., eta ordezkoa, Juan Carlos Alonso Moraza jn.
- PPren udal-taldea: bozeramailea Luis Mª Sautu Apellániz jn.

Udalbatzak udaleko Talde Politikoen eta horien bozeramaileen berri izan du.

**3.- ALKATETZAK ALKATEORDEAK IZENDATZEAREN INGURUAN HARTUTAKO ERABAKIAK EZAGUTZEA.**

Alkateak, alkateordeak izendatzeko 2019ko uztailaren 10eko 236. zk.ko Dekretuaren bitartez hartutako erabakiaren

Vista el acta de la sesión constitutiva del Ayuntamiento, por parte del Concejal Sr. Alonso se pone de manifiesto que el prometió el cargo sin ningún añadido.

La Corporación por unanimidad acuerda aprobar el acta anterior con la corrección expuesta (eliminar el añadido de *por imperativo legal* del Sr. Alonso).

**2.- CONOCIMIENTO DE CONSTITUCIÓN GRUPOS POLÍTICOS Y SUS PORTAVOCES.**

El Alcalde da cuenta de los escritos presentados en tiempo y forma, al amparo de lo establecido en los artículos 23 y ss. del R.D. 2568/1986 de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, de la constitución de los Grupos Políticos, que son los siguientes:

- Grupo Municipal EH-BILDU Zuia: portavoz D. Unai Gutiérrez Urkiza y suplente Dª Inma Elorza Bergara.
- Grupo Municipal ZUIA BAI: portavoz Dª Itziar Ircio Vea-Murguía y suplente D. Juan Carlos Alonso Moraza.
- Grupo Municipal PP: portavoz D. Luis Mª Sautu Apellániz.

La Corporación se da por enterada de los Grupos Políticos municipales y sus portavoces.

**3.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA RELATIVAS A NOMBRAMIENTO DE TENIENTES DE ALCALDE.**

El Alcalde da cuenta de la resolución adoptada mediante Decreto nº 236 de fecha 10 de julio de 2019 por la que

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

berri eman du, hurrenkera honako hau izanik:

1. alkateordea: Agustin Otsoa Eribeko Landa jn.
2. alkateordea: Inma Elorza Bergara and.
3. alkateordea: Alaitz Tresserras Angulo and.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4.- DEDIKAZIOKO KARGUEN ORDAINSARIAK.**

EHBildu taldeak proposatu du alkatearen dedikazio partziala %73an mantentzea eta urteko ordainsari gordina 14 pagatan banatzea, 2019ko aurrekontuan aurreikusita legez, ANko laugarren Sekzioko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 677/2019 epaiaren arabera horretan egin beharreko minorizazioa baztertu gabe. Epai horrek EAEANen epaitza berretsi eta deusez deklaratzen du Toki korporazioetako kideen ordainsarien araubidea arautzen duen Arabako Batzar Nagusien 4/2015 Foru Arauaren 4.1. artikulua, ez dituelako Estatuko legean ezarritako gehieneko mugak betetzen, dagokigun honetan gertatzen den bezala.

Idazkariaren txostena ikusirik, zeinetan adierazten duen aipatu epaia eta ordainsariaren ondoriozko minorizazioa epai hori ALHAOn argitaratzearen menpe dagoela, Aldundiak berak jakinarazi duenez.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA: Jardunaldi eta ordainsariaren inguruan aurkeztutako

se nombran Tenientes de Alcalde, conforme al siguiente orden:

1º Teniente de Alcalde D. Agustín Otsoa Eribeko Landa.
2ª Teniente de Alcalde Dª Inma Elorza Bergara.
3ª Teniente de Alcalde Dª Alaitz Tresserras Angulo.

La Corporación se da por enterada.

**4.- RETRIBUCIONES DE CARGOS CON DEDICACIÓN.**

El Grupo EH-Bildu propone mantener la dedicación parcial de la Alcaldía del 73%, con la retribución bruta anual distribuida en 14 pagas que igualmente está prevista en el presupuesto 2019, sin perjuicio de la minoración que habrá de realizarse de la misma, a la vista de la sentencia 677/2019 de la Sala de lo Contencioso-Administrativo Sección Cuarta del T.S. que ratifica el fallo del TSJPV, y declara nulo el artículo 4.1 de la N.F. 4/2015 de las JJGG de Alava sobre régimen de retribuciones de los miembros de las Corporaciones Locales y personal a su servicio, porque no se ajusta a los límites máximos establecidos en la legislación estatal, como ocurre en el caso que nos ocupa.

Visto el informe de la Secretaria, en el que hace constar que el cumplimiento de la citada sentencia con la consecuente minoración de la retribución está condicionado a la publicación de la sentencia en cuestión en el BOTHA, tal y como ha sido informado desde Diputación.

La Corporación por unanimidad, ACUERDA:

PRIMERO: Ratificar la propuesta presentada en cuanto a jornada y

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

proposamena berrestea, azken hori arestian aipatutako epaian xedatutakoa, ALHAOn argitaratu ondoren, bete beharko duela baztertu gabe (hau da, egun indarrean dagoen ordainsaria minorizatu eta 2019ko ekitaldiko gehikuntzekin eguneratu beharko da -%2,25 gehi %25 19.01.01etik aurrera-, hau da, 35.126,33 eurotik 31.028,87 eurora).

BIGARRENA: Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**5.- OSOKO BILKUREN ALDIZKAKOTASUNA.**

Ohiko Bilkurak hil bakoitzeko bigarren ostegunean, 19:00etan, egitea (abuztuan izan ezik) proposatu du alkate-udalburu jaunak.

Udalbatzak aho batez ONARTU DU aurkeztutako proposamena.

**6.- INFORMAZIO BATZORDEAK SORTU ETA ERATZEA.**

Alkateak honako hau proposatu du:

- Osoko Bilkurako gaiei buruzko informazio-batzordeen bileren aldizkakotasuna oraingoa izaten jarraitzea, eta hil bakoitzeko bigarren asteazkenetan, arratsaldeko 18:00etan, egitea.
- Era berean, **kontu, ogasun, hirigintza eta gai orokorretako batzordeen** aldizkakotasunari eta horien osaerari (Udalbatzako kide guztiak) eustea proposatu da, eta, baita hilean bi saio egiteko maiztasunari eustea ere. Bilerak ostiraletan izango dira, goizeko 8:30ean, eta

retribución, sin perjuicio de que esta última habrá de ajustarse a lo dispuesto en la sentencia a que se ha hecho referencia con anterioridad (que supondrá minorar la retribución actualmente vigente y actualizada con los incrementos del presente ejercicio 2019 -2,25% más 0,25% a partir del 01.01.19- de 35.126,33€ a 31.028,87€), una vez que sea publicada la misma en el BOTHA.

SEGUNDO: Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**5.- PERIODICIDAD DE LAS SESIONES PLENARIAS.**

El Sr. Alcalde-Presidente propone continuar la celebración de las Sesión plenarias Ordinarias los 2º jueves de cada mes, excepto el mes de agosto, a las 19:00 horas.

La Corporación por unanimidad APRUEBA la propuesta presentada.

**6.- CREACIÓN Y COMPOSICIÓN DE COMISIONES INFORMATIVAS.**

El Alcalde propone:

- Continuar con la periodicidad actual de las sesiones de las comisiones informativas de asuntos de pleno, realizándolas los segundos miércoles de cada mes, a las 18:00 horas.
- Asimismo, se propone continuar con la periodicidad de las **comisiones de cuentas, hacienda, urbanismo y asuntos generales** y la composición de las mismas con todas las personas miembros de la Corporación, manteniendo una frecuencia de unas dos sesiones mensuales los viernes

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

bertaratutakoek nahi izanez gero, goizeko 8:00etara ere aurrea liteke.

- **Euskara, berdintasun, kontzeju eta partaidetzako** lantaldeekin (ez dira batzordeak, ez direlako zinegotziak deitzen, ezta aktak jasotzen ere) lanean jarraitzea, eta **kultura eta gazteriako berriak gehitzea**.

Udalbatzak aho batez onartu ditu Osoko Bilkurako gaietako eta kontu, ogasun, hirigintza eta gai orokorretako batzordeei buruzko proposamenak eta 8:30ean egiteari eustea. Bestalde, gehiengo osoz onartu du, PPko zinegotziaren abstentzioarekin, euskara, berdintasun, kontzeju eta partaidetzako batzorde ireki/lantaldeekin jarraitzea eta kultura eta gazteriakoak sortzea.

**KIDE ANITZEKO ORGANOETARAKO** (Koadrilaren Batzarra, Gorbeialdeko Hondakinen Partzuergoa -Gobernu Batzordezko ordezkaria zehaztu-, Haurreskolak Partzuergoa, OAMIP eta BHIko Eskola Kontseiluak, Gorbeiako Parke Naturaleko Patronatua, Gorbeialdeko Landa Garapenerako Elkartea, Tokiko Agenda 21) **UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA**

Alkateak, EH-BILDU taldeak hainbat entitate eta erakundetarako egindako proposamenaren berri eman du:

**ZUIAKO KOADRILAREN BATZARRA:**

Azaroaren 20ko 63/89 Foru Arauak bere 14. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, Zuiako Udalari dagokio Zuiako Koadrilaren Batzarreko 5 batzarkide izendatzea, eta Hauteskunde Lege Orokorraren 163. artikuluan aurreikusitako

a las 8:30 horas, que incluso podría adelantarse a las 8:00 horas a elección de los presentes.

- Continuar trabajando con los grupos de trabajo (no comisiones porque no se convoca a los Concejales, ni se levantan actas) de **euskara, igualdad, concejos y participación, incorporando como nuevas las de cultura y juventud.**

La Corporación por unanimidad aprueba las propuestas referentes a las comisiones de asuntos de pleno y a la de cuentas, hacienda, urbanismo y asuntos generales manteniendo su celebración a las 8:30 horas y por mayoría absoluta, con la abstención del Concejal del PP, aprueba continuar con las comisiones abiertas/grupos de trabajos de euskara, igualdad, concejos y participación, y crear las de cultura y juventud.

**7.- NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES DEL AYUNTAMIENTO EN ÓRGANOS COLEGIADOS** (Junta de Cuadrilla, Consorcio de Basuras de Estribaciones del Gorbea –concretar el representante de la Junta de Gobierno-, Consorcio Haurreskolak, Consejos Escolares CPVO e IES, Patronato del Parque Natural de Gorbeia, Asociación de Desarrollo Rural Estribaciones del Gorbea, Agenda 21 Local).

El Alcalde, da cuenta de la propuesta de su grupo EH-BILDU en las diversas entidades y organismos:

**JUNTA DE CUADRILLA:**

Considerando lo dispuesto en la Norma Foral 63/89, de 20 de noviembre en su artículo 14 corresponde al Ayuntamiento de Zuia nombrar 5 junteros en la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, y aplicando el procedimiento previsto en el art. 163 de la Ley Electoral General a los resultados

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

prozedura duela gutxi izandako Udal Hauteskundeetan zinegotziren bat lortu duten hautagaitzek lortutako emaitzei aplikatuz, EHBildu taldeari hiru batzordekide eta ZUIA BAIri bi batzordekide dagozkie.

Ondorengo izendapenak egin dira:

EHBILDU taldetik: UNAI GUTIÉRREZ URKIZA, INMA ELORZA BERGARA eta NEREA IDÍGORAS LASAGA

ZUIA BAI taldetik: ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA eta JUAN CARLOS ALONSO MORAZA

**GORBEIALDEKO HONDAKINEN PARTZUERGOA:**

Estatutuen arabera, alkatea da Udalaren ordezkaria Asanbladan, eta bera ere proposatu da, UNAI GUTIÉRREZ URKIZA, Gobernu Batzordean ordekari izan dadin eta, baita AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA ere.

Udalbatzak ondorengoa ERABAKI DU, gehiengo osoz, Sautu zinegotzi jaunaren abstentzioarekin:

**HAURRESKOLAK PARTZUERGOA:**

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA proposatu da ordezkari izan dadin.

Udalbatzak ondorengoa ERABAKI DU, gehiengo osoz, Sautu zinegotzi jaunaren abstentzioarekin:

**OROKO ANDRE MARIAREN HLHI IKASTETXEKO ETA MURGIAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUKO ESKOLA KONTSEILUAK:**

obtenidos en las Elecciones Municipales recientemente celebradas por las candidaturas que han obtenido algún/a Concejal, corresponde la atribución de tres representantes al Grupo EH-BILDU y dos a ZUIA BAI.

Se realizan los siguientes nombramientos:

Por el Grupo EHBILDU: UNAI GUTIÉRREZ URKIZA, INMA ELORZA BERGARA y NEREA IDÍGORAS LASAGA

Por el Grupo ZUIA BAI: ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA y JUAN CARLOS ALONSO MORAZA

**CONSORCIO DE BASURAS DE ESTRIBACIONES DEL GORBEA:**

Por los estatutos el Alcalde es el representante del Ayuntamiento en la Asamblea, y se le propone también a él, UNAI GUTIÉRREZ URKIZA como representante en la Junta de Gobierno y a AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA.

La Corporación por mayoría absoluta, con la abstención del Concejal Sr. Sautu ACUERDA ratificar la propuesta.

**CONSORCIO DE HAURRESKOLAK:**

Se propone como representante a AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA.

La Corporación por mayoría absoluta, con la abstención del Concejal Sr. Sautu ACUERDA ratificar la propuesta.

**CONSEJOS ESCOLARES DEL COLEGIO CEIP VIRGEN DE ORO E INSTITUTO DE ENSEÑANZA SECUNDARIA DE MURGIA:**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

ITZIAR MENDIA CELAA (titularra) eta ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (ordezkoa) izendatzea proposatu da.

Udalbatzak ondorengoa ERABAKI DU, gehiengo osoz, Sautu zinegotzi jaunaren abstentzioarekin:

**GORBEIAKO PARKE NATURALEKO PATRONATUA:**

Zui Bai taldeko kideetako bat izatea proposatu dute, eta talde horretako kideek uko egiten dutela esan dute; ondorioz, alkatea, UNAI GUTIÉRREZ URKIZA, proposatu dute.

Udalbatzak ondorengoa ERABAKI DU, gehiengo osoz, Sautu zinegotzi jaunaren abstentzioarekin:

**GORBEIALDEKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA:**

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA izendatzea proposatu dute.

Udalbatzak ondorengoa ERABAKI DU, gehiengo osoz, Sautu zinegotzi jaunaren abstentzioarekin:

**OROKO ANDRE MARIAREN SANTUTEGIKO ZUZENDARITZA BATZORDEA:**

Zui Bai taldeko bi kide eta PPko hirugarren bat izendatzea proposatu da; López zinegotzi andreak azaldu du uko egiten dutela, uste dutelako horren egoera zuzenean ezagutzeko unea dela eta eurek badutelako pertsona bat Kofradian gaien berri izateko; aukera gisa, UNAI GUTIÉRREZ URKIZA eta INMA ELORZA BERGARA eta, gainera, LUIS Mª SAUTU APELLÁNIZ izendatzea

Se propone nombrar a ITZIAR MENDIA CELAA (titular) y ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (suplente).

La Corporación por mayoría absoluta, con la abstención del Concejal Sr. Sautu ACUERDA ratificar la propuesta.

**PATRONATO DEL PARQUE NATURAL DEL GORBEIA:**

Proponen que sea una de las personas integrantes del Grupo Zuia Bai, manifestando los miembros de este grupo que renuncian a ello, ante lo que se propone al Alcalde, UNAI GUTIÉRREZ URKIZA.

La Corporación por mayoría absoluta, con la abstención del Concejal Sr. Sautu ACUERDA ratificar la propuesta.

**ASOCIACIÓN DE DESARROLLO RURAL ESTRIBACIONES DEL GORBEA:**

Proponen nombrar a AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA.

La Corporación por mayoría absoluta, con la abstención del Concejal Sr. Sautu ACUERDA ratificar la propuesta.

**JUNTA RECTORA DEL SANTUARIO NUESTRA SEÑORA DE ORO:**

Se propone nombrar a dos miembros de Zuia Bai y un tercero del PP; la Concejal Sra. López manifiesta que renuncian a ello, porque piensan que es el momento para que conozcan de primera mano la situación del mismo y además ellos tienen ya una persona en la Cofradía para estar al tanto de los temas; como alternativa proponen nombrar a UNAI GUTIÉRREZ URKIZA e INMA ELORZA BERGARA,

proposatu dute. Azken honek izendapena onartu du.

Proposamena berrestea ERABAKI DU Udalbatzak aho batez.

Azkenik, alkateak esan du ez dutela Tokiko Agenda 21erako ordezkaririk izendatzea proposatzen, bileretara teknikariak deitzen dituztelako, eta ez politikariak.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:25ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

además de LUIS Mª SAUTU APELLÁNIZ que acepta el nombramiento.

La Corporación por unanimidad ACUERDA ratificar la propuesta.

Finalmente, el Alcalde dice que no hacen propuesta de nombramiento de representantes en la Agenda Local 21, porque a las reuniones convocan a personal técnico no político.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la reunión, siendo las 19:25 horas, de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria / La Secretario,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*